



20

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

18

MEMORIA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko eta oroimen historikoa berreskuratzen. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.



01**ESKURA**

Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa
Erakunde Arteko Hitzarmena

5

02**DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN
16. ZINEMALDIA**

Aurkezpena

8

Palmaresa

11

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria

13

Ikastetxeei zuzendutako emanaldiak

14

Gazte Epaimahaia

16

Irigarritasuna eta kulturarako sarbidea

17

Erakusketa: Eskola Bideak

18

Erakusketa: Giza Eskubideei begira

19

Saharaz blai. Ikus-entzunezko lehiaketa

20

Errealitate birtuala eta giza eskubideen inguruko erakustaldia

21

Argazki galeria

22

03**Arte eta Giza Eskubideak
HAUR ETA GAZTEEN XIV. EDIZIOA**

24

04**OROIMEN
HISTORIKOA**

Donostiako Oroimen Historikoaren ibilbidea

28

Donostia, Frankismoaren Inpunitatearen aurkako Hirien Sarean

29

Erakusketa eta hitzaldiak:

Álava Sarea. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza (1936-1947)

30

Oroimenaren bidea, bisita antzeztuak

31

Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna

32



05

BIKTIMEN AITORPENA

Jardunaldia: Giza Eskubideen urraketen biktimekiko elkartasuna gazteekin lantzen	34
Plaka Dbuseko langileen omenez	35
Adiorik gabe	36
Oroimenaren Eguna	37

06

NAZIOARTEKO EGUNAK

LGTBQ Askapen Afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna	39
Haurren Egun Unibertsala	39
Biziaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak	40
HIESaren aurkako Munduko Egunaren	40
Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna	
Eskubideen Gunearen inaugurazioa	41
Dbuseko autobuseetan kanpaina	42

07

ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

08

MUGIKORRAK, KONGOREN ALDE

09

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO IKASTAROAK



01



Aieteko Giza Eskubideen aldeko
Pedagogia-Baliabideen Zentroa

Centro de Recursos Pedagógicos
en Derechos Humanos de **Aiete**



Aieteko Jauregian egindako aurkezpenean Iñigo Urkullu Lehendakariak, Markel Olano Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak eta Eneko Goia Donostiako Alkateak parte hartu zuten. Zentroaren jardura izango da hezkuntza-, gizarte- eta partaidetza-pedagogiarako baliagarri diren baliabideak “biltzea, sortzea eta hedatzea”.

01


ESKURA

AIETEKO GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO
PEDAGOGIA-BALIABIDEEN ZENTROA.
ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA

Otsailaren 19an

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak hitzarmena sinatu zuten Eskura izeneko Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa abiarazteko.

Giza eskubideei buruzko hezkuntza sustatzea da zentroaren helburua, eta, horretarako, euskal gizartearen eskura ipiniko ditu (horregatik *Eskura* izena), helburu horretarako unitate didaktikoak, ikus-entzunezko dokumentazioa, testuak edo literatura- eta musika-obrak.



Maribel Vaquero, Elkarbizitzarako eta Giza Eskubideetarako foru diputatua eta Markel Olano, diputatu nagusia.

Euskadin dagoeneko abian diren giza eskubideei buruzko memoria eta hezkuntza azpiegiturentzako pieza osagarria izango da. Jarduerak, urtero, bi ekimen izango ditu ardatz: nazioarteko mintegi bat eta giza eskubideei buruzko baliabide pedagogikoen tokiko azoka.

16

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2018

20 - 27 apirila / abril / April

Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world



02

Apirilaren 20tik 28ra

17.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldian izandako zinema saioetan. Beste urtetan bezala, Victoria Eugenia Antzokian eta hiriko hainbat gunetan burutu zen.

31 nazionalitateko 53 film proiektatu ziren (30 film luze eta 23 film labur).

Programazioa osatu zen hainbat mahai-ingururekin, non filmetako protagonistek, zinemagileek nahiz giza eskubideen arloko adituek parte hartu zuten. Ikastetxeei zuzendutako goizeko emanaldiak ere eskaini ziren.



Donostiako alkatea, Eneko Goia, Josemi Beltrán, Giza Eskubideen zinemaldiko programazio arduraduna, Maribel Vaquero, Gipuzkoako aldundiko bizikidetasun zuzendaria, eta Izaskun Fernández, Amnesty Internationaleko ordezkaria.

23
film labur

17.000
parte-hartzaile

31
nazionalitate

30
film luze






Prostituzioaren eta emakumeen salerosketaren nagusiak.



NoraEZe: Artea, babesleku eta zubi.



Gure begien bitartez.

Lau erakusketa programatu ziren: *Eskola bideak*, *Giza eskubideei begira*, *Artea eta giza eskubideak*, *Haur eta gazteen XIV. ekitaldia*, *Gosearen soinua* eta errealitate birtuala eta giza eskubideak uztartzen dituzten ikus-entzunezko piezen erakusketa.

Halaber, Mabel Lozanok emandako *Prostituzioaren eta emakumeen salerosketaren nagusiak* hitzaldia, eta SOS Arrazakeriaren *NoraEZe: Artea, babesleku eta zubi* erakusketaren inguruko jarduerak antolatu ziren, hainbat erakunde eta elkarterekin batera. Tabakalerako UBIKen *Gure begien bitartez* lantegia antolatu ere.

Jarduera guztiek xede bera dute: gizateriaren erronka, lorpen eta gabezia handiei buruzko ikuspegi kritiko, askotariko, solidario eta aldarrikatzailea eskaini eta sortzea.


Palmaresa

Lau sari banatu ziren:



**Publikoaren saria film
luze onenari:**

Ales Payas-en
*La cifra negra de la
violencia institucional*
(2018, Espainia).



**Amnesty
Internationalen saria
film luze onenari:**

Kaouther Ben Hania-ren
*Beauty and the
Dogs/Aala Kaf Ifrit*
(2017, Tunisia-Frantzia-
Suedia-Norvegia-Libano-
Qatar-Suitza).



**Gazte epaimahaiaren
saria. Film laburren
Nazioarteko Lehiaketa:**

César Vallejoren
El viaje a Islandia
(2017, Espainia),
3.000 €-rekin saritua.



Laurent Cantet
zinemagileak jaso
zuen **Donostiako
Giza Eskubideen 16.
Zinemaldiaren Saria**,
Eneko Goia alkatearen
eskutik, *L'Atelier* (2017)
bere azken filmaren
emanaldia hasi baino
lehen.

**20
18**
MEMORIA

02

**DONOSTIAKO
GIZA ESKUBIDEEN
16. ZINEMALDIA**



Klausura-gaua eta sariak Victoria Eugenia Antzokian.



Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldiaren Saria

Laurent Cantet zinemagileak jaso zuen Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldiaren Saria. Frantziako azken bi hamarkadetako zinemagilerik garrantzitsuenetakoa da. Cantet-en zinema ausarta eta konprometitua da, eta egungo mundua jaso du bere irudietan. Canteten filmografian, bakardadea, inkomunikazioa, hezkuntza, migrazioak, Europako egungo egoera politikoa, lan-munduko parekidetasun faltak, terrorismoa eta kultura-aniztasuna lantzen dira hasiera-hasieratik. Horren lekuko ditugu honako hauek: *Les Sanguinaires* (1997), *Ressources humaines* (1999) eta *L'Emploi du temps* (2001) film bortitza. Bere filmografian nabarmendu behar dira, besteren artean, *Vers le sud* (2005) *Entre les murs* (2008), *Foxfire* (2012), *7 días en La Habana* (2012) edota *Retour à Ithaque* (2014). *L'Atelier* (2017) bere azkeneko filmak bukaera eman zion zinemaldiaren 16. edizioari.

Laurent Cantet

5.000
haur,
eta gazte



Paperezko hegazkinak kartela.



Paddington 2 kartela.

Ikastetxeei zuzendutako emanaldiak

6 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzendutako goizeko emanaldietara hiriko 33 ikastetxetako 5.000 haur eta gazte baino gehiago joan ziren.

Paddington 2, *Paperezko hegazkinak* eta *Handia*, filmak eman ziren, eta hauetan ezberdintasunarekiko errespetua, onberatasunaren indarra edo ametsak jarraitzearen garrantzia bezalako gaiei heltzen zaie.

**6 eta 18 urte
arte**

**33
ikastetxe**



Handia kartela.

20
18
MEMORIA



Telmo Irureta aurkezlea, Eneko Sagardoy eta Joseba Usabiaga Handia pelikulako protagonistekin batera.

02

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 16. ZINEMALDIA



Paddington 2, Handia y Paperezko hegazkinak pelikulen gida didaktikoak.

Guztiak gida didaktikoez osatu ziren, ikasgelan filmek transmititzen dituzten balioak landu ahal izateko. Ekimen honen bidez, ikasle donostiarrak zinera gerturatzea eta ikastetxeetan giza eskubideekin harremana duten gaiak sakontzea lortu nahi zen.

Handia filmeko protagonista diren Eneko Sagardoy eta Joseba Usabiagak aurkeztu zuten hau, Telmo Irureta bakarriketagile eta aktorekin batera.

Gazte Epaimahaia

18 eta 30 urte bitarteko 100 gaztetik gora parte hartu zuten zinemaldiaren Gazte Epaimahaian. Beraiek erabaki zuten, botoen bidez, Film Laburren Onenaren Saria (3.000 eurokoa) zein filmak merezi zuen. Gazteek, pelikulen giza eskubideen gaineko sentsibilizazioa zein zinemagintzaren kalitatea baloratzen dute.

Donostiako espetxeko (Martutene) hainbat presok ere parte hartu zuten Gazte Epaimahaian.

Epaimahaikideen artean bi bidaiaria zozkatzen dira, FiSahara, Saharako Dajla errefuxiatu kanpamentuan egiten den zinemaldia ezagutzeko. Zinemaldi horrek Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin senidetze akordioa du.



Gazte-epaimahai kideak.



Mahai-ingurua.

Horrez gainera, Giza Eskubideen Zinemaldiak programazioa Donostiako espetxera (Martutene) zabaldu zen. Horrela, *Al otro lado de las medallas* filmaren protagonista den Richard Oribek solasaldia izan zuen espetxeko presoekin.



Mahai-ingurua.

Zeinu-hizkuntza mahai-inguru eta aurkezpenetan.





On the way to school.

Erakusketak, Donostiako Udaleko *Eskola Bidea* programako argazkiak ere barnean zituen, eta 386 ikaslek parte hartu zuten bisita gidatuekin osatu zen.

Antolatzaileak: UNESCO, Sipa Press, Timkat, Donostiako Udaleko Giza Eskubide eta Mugikortasun atalak (Eskola Bidea programa), eta Donostia Kultura.

Eskola Bideak Erakusketa

Apirilaren 11tik ekainaren 10era

Aieteko Kultur Etxeak bere baitan hartu zuen UNESCOren *Eskola Bideak* erakusketa, bertan, 10 fotokazetarik munduan zehar bidaiatuta (Kenya, India, Thailandia, Libia, Estatu Batuak...) egunero eskolara iristeko sekulako erronkei aurre egin behar dieten haurren istorio hunkigarri zein harrigarriak jaso ziren.

Benetako istorioak dira, aurpegi eta izenekin, ikuslea milioika umeri Hezkuntza Eskubidera sarbidea galarazten dieten oztopo eta interesei buruz hausnarketa egitera gonbidatuz.

Juan Ramón Vilesek, Lehendakaritza, Gardentasuna, Giza Baliabide eta Berrikuntza zinegotziak, eta Higikortasun zinegotziak, Pilar Aranak, erakusketa aurkeztu zuten.





Giza Eskubidei begira erakusketaren aurkezpena Donostiako EHuko campusean.

Giza Eskubideei begira Erakusketa

Apirilaren 16tik maiatzaren 18ra

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaria aretoak hartu zuen *Giza Eskubideei begira* erakusketa; bertan, diseinatzaile grafiko profesionalek eginiko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko artikuluak banan bana interpretatzen dituzten 30 kartel erakutsi ziren.

Erakusketa honekin, EHUK Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin eta Donostiako Udalarekin batera, 1948an Parisen Nazio Batuen Batzar Orokorrak aldarrikatutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 70. urteurrenaren oroitzapen ekitaldietara batu zen.



Aurkezpenean izan ziren Agustin Erkiza, EHUKo Gipuzkoako Campuseko erretoreordea, Monika Hernando, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Juan Ramon Viles, Donostiako Udalaren Lehendakaritza, Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkaria, Jon Mirena Landa, EHUKo Giza Eskubideen eta Botere Publikoen katedrako zuzendaria, Benicio Aguerrea, EIDeko (Euskadiko Diseinatzaileen Elkarte) koordinatzailea, eta Leire Fernández eta Eduardo Herrera, EHUKo Arte Ederren Fakultateko irakasle eta erakusketaren komisarioak.

Saharaz blai. Ikus-entzunezko lehiaketa

Zinemaldiak Saharaz blai lehiaketaren irabazleek, Daniel Bengoetxea eta Oihane Alonso, Elena Molina zuzendariarekin batera, Tindufeko errefuxiatu kanpamentuan kokaturik dagoen Abdin Kaid Saleh, Saharako Zinema eskolan egindako *Laastsh, Hamadaren egarria* dokumental laburraren aurrestreinaldia eskaini zuen.

Ekimenaren helburua: gazteei uraren garrantziari, bizitzarako garrantzitsua bezain urria den errekurtsuari buruz pentsaraztea.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak, 16 eta 25 urte bitarteko Euskal Herrian eta Saharako kanpamentuetan bizi diren gazteei zuzenduriko eta Arabako SEADen Lagunen Elkartek antolaturiko ekimen honetan parte hartu zuen.

Proiektua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatuta dago.

Laatash Hamada-ren egarria, Saharaz blai lehiaketa irabazi duen dokumentaleko kartela.





Clouds Over Sidra.



Mediterraneo.

Collisions.



© Piers Mustared



Teknologia berri desberdinei esker krisi humanitarioak oso hurbiletik sentitu ahal izan ziren.

Errealitate birtuala eta giza eskubideen inguruko erakustaldia

Apirilaren 20tik 22ra

Errealitate birtuala teknologiaz baliatzen den hamar film labur eskaini zituen zinemaldiak. Film labur horietan, besteak beste, rohingya herriaren krisia, migranteek pateratan bizi duten zorigaitza edota klima aldaketa islatzen dira.

Erakustaldira hurbildutako jendeak munduko hainbat errealitateak gertutik sentitu ahal izan zuen errealitate birtualari esker.



1. Patxi Agiriano, Aitziber García, Xabier Euzkitze eta Begoña del Teso adingabeen harrerari buruzko mahai-inguruan. 2. Ubik Tabakalerako sorrerarako liburutegiak zinema eta argazkigintza lantegia antolatu zuen historia istorio txikien bidez kontatzeko. 3. Kaouther Ben Hania Beauty and the Dogs/Aala Kaf Ifrit pelikulagatik Amnesty Internationalek emandako saria irabazi zuen. 4. Gipuzkoako Itxaropen Telefonoak antolatuta, Mabel Lozano ekintzaileak Los amos de la prostitución y la trata konferentzia eskaini zuen Donostiako Koldo Mitxelenan. 5. Victoria Eugenia Antzokiak hiriko 33 ikastetxeetako 6 eta 18 urte bitarteko 5.000 ikasle baino gehiago hartu zituen.




6. *Gosearen soinua*: soinudun erakusketa. 7. César Vallejo zuzendariaren *El viaje a Islandia* labrumetraiak irabazi zuen Gazte Epaimahaiaren saria. 8. Publikoren saria Ales Payá zuzendariak irabazi zuen, *La cifra negra de la violencia institucional* filmagatik. 9. Egia, Okendo, Lugaritz, Tomasene, Intxaurren eta Aieteko kultur etxetara ere iritsi zen zinemaldia. 10. Laurent Cantet zinegile frantziarra saria eskuetan duela, Eneko Goia, Donostiako alkatearen ondoan.

Artea eta
Giza Eskubideak
Haur eta Gazteen
XIV. ekitaldia
Donostia 2017-2018

03






Lehiaketara aurkeztutako lanak Victoria Eugenia Antzokian, jaialdiko bulegoetan, erakutsi ziren.

2.400 haur eta gazte baino gehiagok parte hartu zuten Artea eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen XIV. Ekitaldian. Guztira 1.622 marrazki aurkeztu zituzten banaka zein taldeka eginiko horma-lanetan.

Arte eta Giza Eskubideak **HAUR ETA GAZTEEN XIV. EDIZIOA**



Ikastetxe, gazteleku zein elkarten bidez edo norberaren izenean, Udalak parte hartzaileak gonbidatu zituen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko lehengo artikulua, bere onarpenaren 70. urteurrenarekin bat eginez, beren hausnarketak era artistiko batean adieraztera. “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute”.



Aurkeztutako lan guztiak Victoria Eugenia Antzokian ikusgai izan ziren.

Sari banaketa, berriz, Donostiako Udaletxeko Batzar Aretoan egin zen, apirilaren 29an.



OROIMEN HISTORIKOA



04

Donostiako Oroimen Historikoaren ibilbidea

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen atalak, beste urte batez antolatu zituen *Donostiako Oroimen Historikoaren ibilbidea* bisita gidatuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Gerra Zibilean, 1936ko estatu kolpearen eta diktadura frankistaren ondoren gertatutakoa ezagutzera emateko.

Bisita gidatueta parte hartu zuten ikasleak Dual eskultura ondoan.



Hauek dira ibilaldian zehar bisitatu ziren 1936ko estatu kolpeko eta frankismoaren garaiko Donostiako gertaera nagusien gunak:

1. ABIATZEA

Easo plazako kioskoa

2. BABESLEKUA

Garai bateko suhiltzaileen eraikina

3. ATXIKITZE LEKUA

San Jose ikastetxea

4. BONBARDAKETA LEKUA

San Martzial kalea 48-50

5. KOMUNIKABIDEAK ETA ZENTSURA

Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea

6. BORROKA LEKUA

Maria Cristina hotela

7. FUSILAMENDU LEKUA

Nautikoaren pasabidea

8. DUAL ESKULTURA

Donostia, Frankismoaren Inpunitatearen aurkako Hirien Sarean

Ekainaren 6an

Donostiako Udala Frankismoaren Inpunitatearen Aurkako Hirien Sareko kide bezala sartu zen.

Bartzelonako alkateorde Jaume Asens-ek (sarearen buruak) eta Donostiako alkate Eneko Goiak sarean sartzea sinatu zuten. Dokumentuan, Udalak konpromisoa hartu du Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta berriro ez gertatzeko bermearen gaineko eskubideak babesteko.

Donostiako Udalak konpromisoa adierazi du, gizarte-eragileekin, biktimekin eta euren senideekin elkarlanean aritzeko; izan ere, eragile oso garrantzitsuak dira frankismoaren inpunitatearen aurkako borrokan.

Gainera, konpromisoa hartu du, sarea osatzen duten beste udalerriekin batera, frankismoaren biktimak dituzten eskubideen aitortza aldarrikatzeko, betiere Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea kontuan hartuta.

Aipatutako konpromisoekin batera, sarea ezagutzak eta estrategiak trukatzeko gunea izango da; eta baita, kereilak aurkezteko eta frankismoaren biktimen memoriaren aldeko beste hainbat neurri hartzeko ere.



Josu Chueca, irakaslea eta erakusketako komisarioa, alkateari eta Juan Mari Atutxari erakusketari buruzko xehetasunak azaltzen.

Erakusketa eta hitzaldiak: Álava Sarea. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza (1936-1947)

Irailaren 6tik 26ra

Aieteko Kultur Etxeak Álava Sarea. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza (1936-1947) erakusketa bere baitan hartu zuen, Luis Alava Sauturen fusilamentuaren 75. urteurrena zela-eta. Sareak bere buruzagi nagusi izan zenaren deitura hartu zuen ("Álava Sarea"). Organizazioak elkartasunezko ekintzak burutu zituen presoen, erbesteratuen eta berauen familien alde, Aliatuentzako espioitza-lanak egiteaz gain, gerra zibilean eta diktadura frankistaren hasieran.

Erakusketaren bitartez, emakumeek sare klandestino horretan euskal herritarren alde egin zuten lana nabarmendu nahi izan zen. Álava Sareak Euskal Herriko gizarte-klase guztietako ia berrogeita hamar kide izan zituen jardunean. Dena den, sarea benetan eratu zutenak lau emakume izan ziren: Itziar Mujika, Delia Lauroba (donostiarrak), Bittori Etxeberria (Elizondo) eta Tere Verdes (Bilbo).

Aurkezpenean honako hauek parte hartu zuten: Donostiako alkateak, Eneko Goiak, Sabino Arana Fundazioko presidentek, Juan Mari Atutxak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzak eta Giza Eskubideetako zuzendariak eta erakusketaren komisarioak, UPV/EHUko irakasle den Josu Chuecak.

Erakusketaren inguruan bi hitzaldi eman zituzten.: "Álava Sarea, erresistentziaren hazia", Josu Chueca historialaren eskutik eta "Emakume donostiar Álava sarean: Itziar Mujika eta Delia Lauroba", Begoña Bilbaok, Gurutze Ezkurdiak y Karmele Perezek eman zuena.

Oroimenaren bidea, bisita antzeztuak

2018ko iraila

231 lagunek parte hartu zuten Udalak antolatutako bisitaldi antzeztuetan, non Donostiaren historia ezagutzera ematen den gerra zibilean, frankismoan eta diktadura garaian.

María Alonso del Val eta Álvaro Garayalde aktoreen eta Xavier Xabier López gidoigilearen eskutik, 1936ko uztailaren 18tik —egun hartan matxinatu baitziren militarrek Errepublikaren aurka— hiria erori zen arte, donostiarrek bizi izandako beldurrak, itxaropenak eta abar ezagutzeko aukera izan zen.



*Antzeztutako
bisitetako
parte-
hartaileak.*



Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna

Irailak 13

Donostiako alkateak eta Udalbatzak frankismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko lore eskaintza egin zuten Dual eskulturan Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna zela-eta.

Udalak, honela, omenaldia egin nahi izan die 1936ko estatu kolpe frankistaren ondoren eta diktadura garaian askatasun demokratikoak babestu zituztenei.

Dual eskulturan egindako ekitaldian Udaleko talde politikoekin batera, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Batzar Nagusietako ordezkariak parte hartu zuten.

Udalbatza aretoan berriz, Hika Antzerki taldeak *Isildutako ahotsak* antzezpena taularatu zuen. Agurtzane Intxaurragak sortu zuen proposamen artistikoa, egun historikoa oroitzeko. Antzezlanak, emakumeei ematen die protagonismo nagusia, beraiek izan baitziren zigortuenak eta isildutako ahotsak gerraostean.

Lore-eskaintza Donostiako Memoria Historikoaren eguna zela-eta.



05



BIKTIMEN
AITORPENA



Axun Lasak eta Iñaki García Arrizabalagak, beste pertsona batzuen artean, hitza hartu zuten mahai-ingurua.

Jardunaldia:
Giza Eskubideen urraketen biktimekiko elkartasuna gazteekin lantzen

Maiatzaren 21ean

Udaleko Giza Eskubideen atalak eta Baketik elkarteak *Giza Eskubideen urraketen biktimekiko elkartasuna gazteekin lantzen* izenburuko mahai ingurua antolatu zuen San Telmo Museoa.

Giza Eskubide zinegotziak, Juan Ramón Vilesek adierazi zuenez, "garrantzitsua iruditzen zaigu, historia hurbilean gure herrian izan ditugun giza eskubideen urraketak salatzea. Eta horretarako -gehitu zuen- ezinbestekoa da belaunaldi gazteenekin lan egitea".

Honako hauek parte hartu zuten mahai inguruan:

- Gema Varona, Kriminologiaren Euskal Institutuko doktore ikertzaileak biktimen parte hartzeak memoriaren transmisioan duen garrantzia eta balioa azaldu zuen.
- Enrique Ullibarriarana, hamaika hezkuntza zentrotan abian dagoen Eusko Jaurlaritzaren Adi-Adian programaren arduraduna.
- Itsaso Garzón, Santo Tomas Lizeoko filosofia irakaslea.
- Adi-Adian programan parte hartu duten Santo Tomas Lizeoko ikasleak.
- Irene Gantxegi, Euskadiko Gazteria Kontseiluko ordezkaria.
- Axun Lasa, GALEk eraildako Joxean Lasaren arreba, eta ETAK aita hil zion Iñaki García Arrizabalaga.



Alkatea, zinegotziak, senideak eta Donostibuseko langileak plaka jarri ondoren.

Testuinguru horretan hil ziren Dbuseko bi langileren aipamena egiten du plakak: konpainiaren gidari izan ziren Mikel Zabalza eta Angel Portugalena.

Eneko Goia alkatearen esanetan omenaldia “memoria ekitaldi txiki bat da eta urte askotan indarkeria giroaren ondorioak pairatu duen kolektiboari, esker ona erakutsi nahi dio. Donostiak pausoak ematen jarraituko du garai batean gure kaleetan pertsona askoren funtsezko eskubideak urratu zirela gogoratzeko memoria gune iraunkorra sortu arte gure hirian”.

Plaka Dbuseko langileen omenez

Ekainaren 18an

Donostiako Udalak eta Dbusek plaka oroigarri bat jarri zuten Dbuseko instalazioetan, Euskal Herrian, modu batean edo bestean, azken hamarkadetan jasandako indarkeriaren biktima izan diren langileen omenez.



Adiorik gabe

Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren legatu den *Adiorik gabe* programak jarraipena izan dezan prozesua abian jarri du Donostiako Udalak. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak omentzeko, oroitzeko eta aitortza egiteko ekitaldi artistikoa da Adiorik gabe.

Eneko Goia alkateak adierazi zuenez, “2016an hiru ekitaldi egin ziren eta guztira bortizkeriaren 12 biktima oroitu ziren. Eragin handia izan zuen programa horri jarraipena eman nahi diogu, hirian izandako bortizkeria mota ezberdinek eragindako beste lau biktima gogoratzuz”.

2019an lau biktima omenduko dira hiru saiotan. Lehenengo saioa hiritar guztientzat izango da, eta beste biak, ikasleentzat.



Adiorik gabe emanaldiak, Kursaalean eta Musikenen

2016an, Juan Manuel García Cordero, Garrido-Velasco familia, Eugenio Olaciregui, Mikel Zabalza, Tomás Alba, Enrique Casas, Gerónimo Vera, Aureliano Calvo, Ramón Díaz, Francisco Javier Gómez Elósegui, Mari Jose Bravo del Valle eta Angel Mota biktimak gogoan izan ziren.

Adiorik gabe adierazpen artistikoak indarrez kendu zizkiguten pertsonei buruzko oroimena berreraiki nahi du, musika, dantza edo testigantzen bitartez, eta gizarteari elkargune bat eskainiko dio biktimekiko emozioa, empatia eta elkartasuna agertzeko.



Oroimenaren Eguna

Azaroaren 10ean

Oroimenaren Eguna zela eta, Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta bortizkeriaren biktimei. Urtero bezala, ekitaldia “Oroimena-Memoria” monolito aurrean izan zen. Bertan, udal korporazioko zinegotziek lore-eskaintza egin zuten minutu bateko isilunea gorde ondoren.

Eneko Goia alkateak jakinarazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak egindako *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri* dokumentuan jasotako terrorismoaren eta bortizkeriaren 128 biktimak gogorarazteko eta omentzeko, hirian plaka pertsonalizatuak jarriko dira.



Alderdi Ederren dagoen Oroimena-Memoria monolitoaren parean biktimei eskainitako omenaldia.



NAZIOARTEKO EGUNAK

06





Udaletxearen fatxada aniztasunaren koloreekin apaindu zen ekainaren 28an.

LGBTQ Askapen Afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna

Ekainaren 28an

Transexualen, Bisexualen, Lesbianen, Gayen eta Queeren Askapen Afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Egunarekin bat egin zuen aurten ere Donostiako Udalak.

Egun horretan, udaletxeko fatxadan ostadar koloreko bandera zintzilikatu zen. Udaleko fatxada eta Kursala aniztasunaren koloreekin argiztatu zituzten eta hiriko autobusek, berriz, kartelak ikusgai jarri zituzten.

GEHITU eta EHGAM elkarteek ere hainbat ekintza antolatu zituzten.




Haurren egun unibertsalaren ospakizuna Udal-hautxoko batean.

Haurren Egun Unibertsala

Azaroaren 20an

Haurren Egun Unibertsala zela eta, Donostiako Udalak haurrak, gazteak eta familiak gonbidatu zituen aniztasunak duen balioa ulertzera eta enpatia eta bestearen larruan jartzeko gaitasuna sustatzera. Unicefen laguntzarekin, besteak beste, 8 Haurtxoko eta Gaztelekutan hainbat ekintza egin ziren: jokoak, ipuin-kontaketak, antzerkiak...

Horrez gain, Udalbatza Aretoan, festa bat izan zen, zuzeneko musika, ipuin kontaketa, jolas eta munduko gozoekin.



Ez heriotza-zigorrari eta bai bizitzari aldarrikatzeko udaletxeko aurrealdea kolore gorritz argiztatuta.

Biziaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak

Azaroaren 30ean

Sant'Egidio Komunitateak duela 16 urtetik urtero, azaroaren 30ean, oroitarazten duen *Biziaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak* nazioarteko ekimenarekin bat egin zuen Donostiako hiriak iaz ere. Heriotza-zigorraren indargabetzea aldarrikatzeko, Donostiako udaletxeko aurrealdea gorritz argiztatu zen. Iaz, heriotza-zigorraren ondorioz, 993 pertsona exekutatu zituzten: 894 gizon eta 9 emakume.

2016an Donostiako Udalak onartutako erakunde adierazpenaren arabera, bere eskumeneko arlo guztietan heriotza-zigorra gaitzesteko arrazoiei buruzko informazioa emateko eta jendea sentsibilizatzeko espazio egokiak sortzeko konpromisoa hartu zuen.



Musika eta Dantza Eskolako ikasleak, kontzentrazioaren aurrean.

HIESaren aurkako Munduko Egunaren

Abenduaren 1ean

HIESaren aurkako Munduko Egunaren harira Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, hainbat ekintza antolatu zituen Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarteekin batera.

Kalkutako Teresa plazan, Hiesaren memorialaren ondoan, elkarretaratzea egin zen. Bertan, HIESaren aurkako taldeek prestatutako jakinarazpenaren irakurketa egin zen, informazio mahaiak jarri ziren eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak dantza emanaldia eskaini zuen.

Begizta gorriko kartelak udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan (Kursaalean, besteak beste) eta hainbat garraio publikotan jarri ziren. Udaletxea baita gorritz argiztatu ere.



**GIZA ESKUBIDEEN
NAZIOARTEKO EGUNA**

Abenduaren 10ean

**Eskubideen Gunearen
inaugurazioa**

Giza Eskubideen
Adierazpen Unibertsala
onartu zenetik 70 urte
bete zirela eta, Eneko
Goia alkateak *Eskubideen
gunea* instalazio artistikoa
inauguratu zuen Aieteko
parkean.



Harrespil itxurako instalazio artistiko-pedagogiko bat da, zeinak izan nahi duen aldi berean omenaldi-oroitarri bat eta herritarrek nazioarteko dokumentu horretan jasota dauden balioen eta eskubideen gainean gogoeta egiteko ibilbide pedagogikoa ere. Metalezko 30 panel zurik osatzen dute, eta horietan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko artikuluz guztiak, ziriz idatzita daude, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez; aurkezpen modulu bat ere badu, non jasota dagoen hitzaurrea.

Alkateak nabarmendu zuenez, “Eskubideen gunea lanak alderdi pedagogikoa eranstean dio Aieteko parkeari, osatu egiten baititu parkea giza eskubideen informazio, sustapen, babes eta aitorpenerako espazio integral bilakatzen duten ibilbidea, piezak eta ekipamenduak”.



Donostiako alkatea, Eneko Goia, eta Juan Ramón Viles zinegotzia Eskubideen Gunearen talde sortzailearekin batera.

Dbuseko autobuseetan kanpaina

Uztail-abuztuan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko artikuluz banarekin “jantzi” ziren Dbuseko 30 autobus, Nazio Batuen Erakundearen Biltzar Nagusiak 1948an onartu zuela oroitzeko. Diseinatzaile profesionalek kartel bidez eginiko artelanez ilustratu ziren 30 artikuluz —euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez—. Kartel horiek EHUK bultzatzen duen *Giza eskubideei begira* erakusketa kolektiboa eratzen dute.

Giza Eskubideen Bulegoak antolatu zuen ekimena, dokumentu horretan jasotako balio eta eskubideak aditzera emateko helburuarekin, aipatutako agiri hori mugarritzat baitute.

Kanpainaren aurkezpenean parte hartu zuten Donostiako alkate Eneko Goiak, Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkari Juan Ramón Vilesek eta Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Pilar Aranak.

Eneko Goiak gogorarazi bezala, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko *Eskerrak Giza Eskubideei* erakunde arteko ekimenean sartu zen. Hartan, Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetako udalek, foru aldundiek, EUDELEk eta EHUK parte hartu zuten. Bere helburua giza eskubideak sustatzea, aldarrikatzea eta babestea izan zen.



Donostiako autobusetako kanpainaren aurkezpena. Argazkian, autobus bat Adierazpen Unibertsaleko hirugarren artikulua, bizitzarako eskubidea, "jantzita".



07

08

09





Giza eskubideekin lotura duten

**27 proiekturi
50.300 euroko**

diru-laguntza eman zien
Donostiako Udalak.

Bakea, bizikidetza, giza
eskubideak, aniztasunarekiko
errespetua eta oroimen
historikoaren berreskurapena
bultzatzen duten gizarte
eragileen ekimenak eta
proiektuak babestea da diru-
laguntza horien helburua.

Donostiako Udalak, Alboan GKEekin elkarlanean, *Kongoren aldeko mugikorrak* kanpainaren bitartez, dagoeneko erabiltzen ez diren ahalik eta gailu gehien bildu nahi ditu Kongoko Errepublika Demokratikoan ekintza humanitarioak egiteko. Honela, mugikorrak utzi daitezkeen kaxak jarri dira udal eraikuntzetan.

Eneko Goia alkatea, Alboaneko ordezkariarekin batera.



Ekimen hau, *Gatazkarik Gabeko Teknologia* kanpainaren testuinguruan kokatzen da, zeinek ezagutzera eman nahi duen mugikor, tableta, ordenagailu edo edozein aparatu teknologikok eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdeko gerrak duten harremana.

Eslogana hau da: "Jar ezazu hemen zure mugikor zaharra eta Alboan elkarteak iheslari eta desplazatutako pertsonentzako hezkuntzarako aukera bihurtuko du".



2018ko urritik – 2019ko apirilera



2018ko urritik 2019ko apirilera

Giza Eskubideei buruzko XXII. ikastaroek, EHUK antolatu eta Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak babesten dituztenak, gaur-gaurko gaien inguruan gogoeta egingo dute; hala nola, pertsonen eskubideen egoera eta erronkak Brexitaren aurrean, teknologia berriak, ingurumena edo kirola.

Parte hartzaileen artean, besteak beste, Juan Manuel de Faramiñan, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedradun emeritua, eta Carmen Pérez González irakasle eta Espainiako Futbol Federazioaren Lehiaketa Batzordearen presidentea. Lehenak ireki zuen edizio hau, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenean ditugun erronkei buruzko hitzaldi batekin, eta bigarrenak, berriz, kirolari eta giza eskubideei buruzko hitzaldia eman zuen.

Ikastaroen osagarri, hiru beka ematen dira, ikasleak Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko Urteko Irakaskuntza Saiora joan daitezen, eta, horrez gainera, hitzaldi guztien urteko argitalpena kaleratuko da.



Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

Aieteko Jauregia

Aiete Pasealekua, 65, 20009 Donostia

943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus

www.donostia.eus/gizaeskubideak